

ANOETA. Tailerra eta erakusketa, liburuaren inguruan

Erredakzioa

Anoetako Udalak Liburuaren Nazioarteko Egunaren inguruan bi egitasmo antolatu ditu, tailer bat eta erakusketa. Irakurketaz gozatzen izeneko tailerra gurasoei zuzendutakoa da. Yolanda Arrieta idazle eta literatura animatzaileak emango du.

Tailerrean, irakurgaiak aztertzeaz gain, ipuinak nola kontatu eta nola irakurri landuko dute, era praktikoz eta gurasoen partaidetza zuzena bilatuz. Saiotetan landutako testuak etxeko hurrekin nola funtzionatzen duten aztertuko dute, adin eta egoera desberdinak kontuan hartuz. 0-5 urteko haurren gurasoentzat zuzenduta dago eta Udal Liburutegian izango da. Maiatzaren 14, 21 eta 31n (ostegunak) egingo dituzte, 15:15etik 16:45era. Izena emateko epea ostiral honetan amaitzen da eta udaletxean edo liburutegian egin daiteke.

Bestalde, Andersenek idatzitako ipuinetan oinarrituriko erakusketa ikusteko aukera izango da. Erakusketa bost panelek osatzen dute. Bertan Andersenek 10 ipuin eta hauetan oinarrituriko 10 ilustrazio agertzen dira. Abraham Olano kiroldegian ikusi ahalko da maiatzaren 2tik 9ra, biak barne. Astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara; larunbatean 09:00etatik 13:00etara.